

# Nortzuen artean eraldatuko dugu?



**GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA**  
IDAZLEA

**H**iru hilabete ere ez dira Euskal Herriko hainbat kulturgilek greba digitalerako deia egin geniola gure jendarteari. Astebetean 1.169 atxikimendu jaso genituen [www.kulturgintzan.eus](http://www.kulturgintzan.eus) web-orriaren bitartez, norbanakoan, gehienak, zein taldekakoak. Web-orriaren bitartez ez bestela deialdiari atxikimendua adierazi ziotenen kopuruak eta aniztasunak zer pentsatua eman zigun. Euren sare sozialen bitartez zein bestelako komunikazio iturriak erabiliz gure proposamenekin bat egin zutela adierazi zuten, besteak beste, Gure Esku Dagok, Bilgune Feministak, Udalbiltzak, UEUK, EHEk, ESKk, LABek, Ernaik, EH Bilduk, Elkarrekin-Podemos, Equo-Berdeak, Galdakao, Usurbil, Oñati, Ataun eta Villabonako udalek, Geltokik, Askorak, Elizalde Herri eskolak, Hautzaro ikastolak, Kirikiño Atsedeen taldeak, Aberrigintzanek, Araba Euskarazek, Txatxilipurdik, Garabidek, Topaguneak, Kontseiluak. Uler liteke jatorriz, izaeraz, funtzioz, helburuz ezberdinak diren gizarte eragile guztiok kulturgintza oro har eta beren beregi

Akaso euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen dutenei dei egiteaz gain, gaur egun elkarrekin bizitzeko modu hau eraldatu nahi duten eragileei ere dei egin beharko genieke

euskarazkoa euren lehentasunezkoztat izan nahi dituztela? Ondoriozta genezake elkar elikatuz, elkar babestuz, elkar zainduz, helburu komunak erdiesteko dinamikak abiarazi genitzakeela? Greba digitalerako deialdian zehaztu genituen helburuetatik hirugarrenak zera zioen: “Euskal Herri osoko kulturgintzaren ekosistema osatzen dugun eragile guztioi dei egitea larrialdi egoerak ahalbidetzen digunean mahai/bilera/

topaketa... bat gauzatu dezagun euskal kulturgintzaren gabezia eta premia larrirei aurre egiteko zer egin proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko”. Deialdi hau ez da berria. 2014an, Guk Geure Kulturaz izeneko ekimena burutu genuen. Bi batzar zabaletan, kulturgintzaren ekosistemako 300etik gora kulturgile elkartu eta premiazko neurrien zerrenda adostu genuen (<https://geuk14.wordpress.com/>). Neurri horietatik ez da bakar bat ere gauzatu, batetik eskumena duten erakunde publikoen ardurak izan duten alderdi politikoek gutxietsi egin dituztelako eskariok eta bestetik, guk ez dugulako boteregunerik irabazi. Sei urteren ondoren, hartzaile berberari egin diogu dei. Akaso horretan ez dugu asmatu. Akaso euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen dutenei dei egiteaz gain, gaur egun elkarrekin bizitzeko modu hau eraldatu nahi duten eragileei ere dei egin beharko genieke. Akaso paradigma, eredu, patroia aldatuko badugu, gainontzeko gizarte mugimendu eraldatzaileekin elkartuta lortuko dugu. ●

 **ARGIA**

**ZURE** JENDEA  
HEDABIDEAK  
IRAGARKIA



Jarri zure  
publizitatea  
hemen!

[publiz@argia.eus](mailto:publiz@argia.eus)  
943 37 15 45  
[argia.eus/tarifak](http://argia.eus/tarifak)